I. ERANSKINA

Jarduketa diruz lagungarriak eta kostu hautagarriak

1. Jarduketa diruz lagungarriak

1. Jarduketa guztiek aplikagarri zaien indarreko araudia bete beharko dute, eta nahitaezko administrazio-lizentziak eta baimenak izan beharko dituzte, hala eskatuz gero.

2. Jarduketa diruz lagungarri bakoitzaren baldintza orokorrak:

    a. Abiapuntuko egoeratik abiatuta azken energiaren kontsumoa % 20 murriztu dela egiaztatu beharko da. Hori justifikatzeko, aurkeztu beharko dira eraikinaren egungo energia-efizientziaren ziurtagiria, eta birgaitu ondoren izanen lukeen energia-efizientziaren ziurtagiria. Horiek egin behar dira Eraikinen Energia-efizientzia Ziurtatzeko Oinarrizko Prozedura onesten duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuaren arabera.

    b. Aurrezten den azken energiaren kWh bakoitzeko emandako laguntzak ezingo du izan 0,43 eurotik gorakoa.

    Ondoren, jarduketa diruz lagungarrien tipologia bakoitzak bete beharko dituen ezaugarriak deskribatzen dira.

1. jarduketa tipologia. Inguratzaile termikoaren energia-efizientzia hobetzea.

Jarduketa diruz lagungarriak izanen dira lokal edo eraikin baten zatien —bizitzeko espazioak kanpoko espaziotik (airea, lursail bat edo beste eraikin bat) bereizten dituzten zatien— inguratzaile termikoan egiten diren jarduketak, eta, halaber, bizitzeko espazioak bizitzekoak ez direnetatik bereizten dituzten barne-banaketak. Inguratzaile termikoan era horretako jarduketak eginez, eraikin osoaren, lokal baten edo eraikin baten zatien berokuntza- eta hozte-sistemen eskaera energetikoa gutxitzea lortzen da.

2. jarduketa tipologia. Instalazio termikoetan energia-efizientzia hobetzea eta energia berriztagarriak erabiltzea.

2.1 azpitipologia. Energia konbentzionalaren ordez eguzki-energia termikoa erabiltzea.

Jarduketa diruz lagungarriak izanen dira eraikin osoetan, lokaletan edo lehendik dagoen eraikin baten zatietan berotzeko, hozteko, etxeko ur berorako edo igerilekuen klimatizaziorako energia konbentzionalaren ordez eguzki-energia termikoa erabiltzen dutenak.

2.2 azpitipologia. Energia konbentzionalaren ordez energia geotermikoa erabiltzea.

Jarduketa diruz lagungarriak izanen dira eraikin osoetan, lokaletan edo lehendik dagoen eraikin baten zatietan berotzeko, hozteko, etxeko ur berorako edo igerilekuen klimatizaziorako energia konbentzionalaren ordez energia geotermikoa erabiltzen dutenak.

2.3 azpitipologia. Instalazio termikoetan, energia konbentzionalaren ordez, biomasa erabiltzea.

Jarduketa diruz lagungarriak izanen dira eraikin osoetan, lokaletan edo lehendik dagoen eraikin zati batean berotzeko, hozteko, etxeko ur berorako edo igerilekuen klimatizaziorako, energia konbentzionalen ordez, biomasatik datorren energia erabiltzen dutenak.

2.4. azpitipologia. 2.1etik 2.3ra bitarteko azpitipologietan sartzen ez diren sorkuntza-sistemen energia-efizientzia hobetzea

Jarduketa diruz lagungarriak izanen dira eraikin osoetan, lokaletan edo eraikin zatietan berotzeko, hozteko, etxeko ur berorako edo igerilekuen klimatizaziorako, energia konbentzionalaren ordez, geotermiaz bestelako bero-ponpak erabiltzen dituzten instalazioekin egindakoak.

Kostu hautagarritzat hartuko dira bero-ponpen instalazioetako barne-banaketa eta ekipo terminalak, baldin eta efizientzia handiko ekipo terminalak instalatzen badira (besteak beste, tenperatura baxuko erradiadoreak, zoru erradiatzailea edo haizagailu-konbektoreak).

Hauek izanen dira energia-jarduketa diruz lagungarriak:

a. Energia-efizientzia handiko aerotermia- eta hidrotermia-soluzioak.
b. Aireztapen natural eta behartuko sistemak.
c. Kanpoko aire bidezko doako hozte-sistemak.
d. Kanpora ateratzen den beroa eta airea berreskuratzeko eta hondar-energiak aprobetxatzeko sistemak.
e. Instalazioaren energia-kontsumoa murrizten duten lurruntze-teknikak erabiltzen dituzten sistemak: lurrunduz hoztea, lurruntze bidezko kondentsazioa, aurrez aire kondentsatua lurrunduz hoztea, kanpora ateratako airea berreskuratu aurretik zuzenean edo zeharka lurrunduz hoztea, etab.
f. Aireztapen-airearen kalitatea hobetzen eta osasungarriago egiten duten sistemak; besteak beste, hauek:
    i. Airearen kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea.
    ii. CO^2 kontzentrazio bidezko aireztapena txertatzea.
    iii. Barruko airearen kalitatea hobetzeko jarduketak, aire-emariak handituz, birzirkulazioko airea iragaziz, aire-arazgailuak erabiliz, etab.

<u>3. jarduketa tipologia. Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea.</u>

Jarduketa diruz lagungarriak izanen dira barne-argiztapeneko instalazioetan energia-efizientzia hobetzen duten mota guztietako jarduketak, bai eta erakusleihoetako, eraikinen kanpoaldea apaintzeko eta eraikinen alboko aire zabaleko aparkalekuetako argiztapenaren energia-efizientzia hobetzeko jarduketak ere (azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuak onetsitako Kanpo-argiztapeneko Instalazioen Energia-efizientziari buruzko Erregelamenduak arautzen ditu).

Besteak beste, hauek izanen dira jarduketa diruz lagungarriak (ez da zerrenda mugatu gisa hartu behar, gutxi gorabeherakoa baizik):

a. Luminariak, lanparak eta ekipamendua: lehengoen ordez, errendimendu handiagoko luminariak jartzea (IKT teknologia, efizientzia handiagoko lanparak eta erreaktantzia elektroniko erregulagarriak izan daitezke), argiztapenaren potentzia instalatua murriztea ahalbidetzen dutenak, araututako erosotasun bisualeko eskakizunak eta kalitatekoak betez.
b. Pizteko eta argiztapen-maila erregulatzeko bitarteko digitalen bidez, kontrol lokala, urruneko kontrola edo kontrol automatikoa egiteko aukera ematen duten sistemak eta elementuak: besteak beste, presentziaren kontrol-sistemak –eraikin osokoak edo lokalaren edo eraikinaren zati batekoak– edo argiztapen-maila argi naturalaren arabera erregulatzen duten sistemak.
c. Argiztapen-sistema aldatzea: aurreko teknologiak erabiliz argi-puntuak birkokatzea, hala, urteko kontsumo elektrikoa egungo argiztapen-sistemarekin egiten dena baino txikiagoa izateko.
d. Urruneko kontrola edo bitarteko digitalen bidez kontrol automatikoa egiteko aukera ematen duten sistemak eta elementuak:
    i. Argiztapena une bakoitzeko beharretara egokitzen duten argiztapen-sistema efizienteak.
    ii. Eraikin osoko, lokaleko edo eraikin baten zatiko toldoak, pertsianak edo errezelak automatikoki kontrolatzeko sistemak, eguzki-argia modu optimoan aprobetxatzeko.
    iii. Eraikin osoak, lokalak edo eraikin-zatiak pizteko, itzaltzeko eta haien argiztapena erregulatzeko kontrol automatikoko sistemak.

<u>4. tipologia: Automatizazio- eta kontrol-sistemak.</u>

Jarduketa diruz lagungarriak izanen dira automatizazio- eta kontrol-sistema berri bat instalatzeko edo lehendik dagoen bat zabaldu edo hobetzeko egiten direnak, baldin eta, jarduketa horien bidez, murriztu egiten bada eraikin osoaren, lokalaren edo eraikinaren zati baten energia-kontsumoa eta, hala, mantendu edo hobetu egiten badira araudiak ezarritako erosotasun- eta osasungarritasun-baldintzak.

Eraikin osoak, lokalak edo eraikin-zatiak automatizatzeko eta kontrolatzeko sistematzat hartuko dira honako hauek: eraikin osoaren, lokalaren edo eraikin-zati baten instalazio teknikoak energia-efizientziaren, ekonomiaren eta segurtasunaren ikuspegitik hobetzeko erabiltzen diren produktu, programa informatiko eta ingeniaritza-zerbitzu guztiak, baldin eta, horien bidez, eraikin osoaren, lokalaren edo eraikin-zati baten instalazio teknikoen kontrol automatizatua egiten bada edo eskuz kudeatzeko erraztasunak ematen badira.

Eraikin osoak, lokalak edo eraikin-zatiak automatizatzeko eta kontrolatzeko sistemek gai izan behar dute:

a. energia-kontsumoaren etengabeko egokitzapena monitorizatzeko, erregistratzeko, aztertzeko eta ahalbidetzeko;
b. konektatutako instalazio teknikoekin eta eraikin osoan, lokalean edo eraikinaren zati batean dauden instalazio teknikoekin eta beste aparatu batzuekin komunikatzeko, eta, halaber, elkarreragingarritasuna bermatzeko

eraikin osoan, lokalean edo eraikin-zati batean dauden patentatutako hainbat teknologia, gailu eta fabrikatzaile motatako instalazio teknikoekin.

2. Kostu hautagarriak

Kostu hautagarritzat hartuko dira, aurreko jarduketa-tipologien arabera, zuzenki loturik daudenak eraikineko energia-efizientzia hobetzearekin. Zehazki, kostu hautagarriak dira honako hauek:

a. Teknikari eskudunari uztailaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan aurreikusitako energia-efizientziaren ziurtagiria egiteagatik ordaindutako ordainsari profesionalak.

b. Ekipamendu, obra, instalazio eta materialetan egindako inbertsioa.

c. Jarduketekin lotutako proiektu teknikoak eta zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.

d. Eskaera kudeatzeko eta laguntza justifikatzeko kostuak.

e. Instalazioak muntatzeko kostuak, eta ekipo, material eta instalazio osagarriak muntatzeko kostuak (baldin badaude).

f. Obraren eta muntaketa-lanen segurtasun- eta osasun-arloko planaren eta koordinazioaren kostuak.

g. Hondakinak kudeatzeko kostuak.

   Jarduketaren ondorioz amiantoa duten eraikuntza-produktuak kentzeak sorturiko kostuak. Amiantoa legez baimendutako enpresa batek kendu beharko du, xedapen honetan ezarritakoari jarraikiz: 396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpeko arriskua duten lanpostuei aplikatu beharreko segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ematen dituena. Prozesu horretan sortutako hondakinak kudeatzeko orduan, honako hauetan ezarritakoari jarraitu behar zaio: 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta Kutsatutako Lurzoruei buruzkoa, eta 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Eraikuntzako eta Eraispenetako Hondakinen Sorrera eta Kudeaketa arautzen dituena.

h. Jarduketa tipologia bakoitzean beharrezkoak direla justifikatutako beste partida batzuk (osagarriak edo ez), hurrengo apartatuan kostu ez-hautagarritzat jotakoez bestelakoak.

3. Kostu EZ hautagarriak

Honako kostu hauek ez dira joko hautagarritzat:

a. Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaiteke.

b. Autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioak.

c. Eraikin berrietan egindako jarduketak, eta, lehendik dauden eraikinen kasuan, eraikinaren zati bat handitzeko egiten diren esku-hartzeak.

d. Sorkuntza termikoko ekipo baten ordez, jatorri fosileko erregaia erabiltzen duen beste bat jartzea.

e. Gastu propioak (langileenak edo funtzionamendukoak).

f. Administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abal eta fidantzen kostua, isunak, tasak, zergak edo ordainak.

g. Kudeaketei, kontratazioei, kontsultei edo administrazio-tramiteei lotutako edozein gastu, nahiz eta beharrezkoak izan baimenak edo lizentziak lortzeko.

h. Hartzaileek sinatutako aseguruak.

i. Zaintza- eta segurtasun-zerbitzuak.

j. Edozein motatako finantza-kostuak.

k. Zehapen penalekin eta prozedura judizialekin lotutako kostuak.

l. Sistema eragileetarako eta bulegotika-aplikazioetarako lizentziak, baldin eta ez badira beharrezkoak automatizazio- eta kontrol-sistemaren funtzionamendurako.

m. Jarduketen operaziorako eta mantentze-lanetarako edo administrazio arloko gastu oro.

n. Eskatzaileak proiektua aurrera eramateko egiten dituen sustapen-gastuak eta komunikazio-kanpainak.

II. ERANSKINA

Dokumentazioa

1. Eskaera egiteko behar den dokumentazioa

1.1. Laguntzaren eskaera

Laguntza-eskaera telematikoki egin behar da, deialdiaren web-fitxaren bidez. Honako datu hauek eman behar dira:

- Nahitaezko datuak
  - Laguntzaren eskatzailearen datu orokorrak.
  - Ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) epigrafea, Nafarroako Jarduera Ekonomikoen Erregistroari dagokiona.
  - Jarduketaren tipologia, deskribapena, kokapena eta datu teknikoak eta ekonomikoak.

- Honako hauek egiaztatzen dituzten erantzukizunpeko adierazpenak:
  - Enpresaren tamaina, Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean zehazturikoaren arabera.

    Aurreko hiru urteetako kontuak beste laguntza-deialdi batean aurkeztu badira, zeinetan aurkeztu diren adierazi beharko da (espediente-zenbakia eta departamentua).

    Espainiatik kanpoko enpresa elkartuen eta lotutako enpresen kasuan, enpresa horien urteko kontu itxiak aurkeztu beharko dira, edo administrazio-espedientea eta dokumentazio hori aurkeztu den Nafarroako Gobernuko departamentua adierazi beharko dira. Kontu horiek sinatuta egon behar dute eta, beharrezkoa denean, baita ikuskatuta eta dagokien erregistroan gordailututa ere.

    Laguntza emateko ebazpenaren aurretik eskabidean adierazi den enpresaren tamaina aldatzen duen inguruabarren bat gertatuko balitz, eskatzaileak hori jakinarazi beharko du, aldaketa gertatu eta hurrengo hamar eguneko epean.

    Laguntzak kudeatzen dituen organoak edozein unetan eskatzen ahalko ditu dokumentu gehigarriak ETE izaera egiaztatzeko eta diru-fluxuak eta tamaina finantzarioak kalkulatzeko eta, halaber, adierazitako elkarte- edo lotura-harremanak egiaztatzeko.

  - 2.2 oinarrian onuradun izateko zehaztutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten adierazpenak.

  - Laguntza eskatzeko unean jarduketa bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso den zehazten duten adierazpenak.
    Halakorik eskatu edo lortu bada, laguntzaren zenbatekoa, deialdia eta espediente-zenbakia adierazi beharko dira. Halaber, konpromisoa adierazi beharko da deialdi hau izapidetzen den bitartean jarduketa bererako eskatzen edo lortzen ahal diren laguntzen berri emateko.

- Onuradunak balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) berreskuratzen edo konpentsatzen ahal duen zehazten duen adierazpena. Hala ez bada, kostu hautagarri gisa gehitu ahal izanen da.

- Dirulaguntza ematen duen organoari baimena ematen zaion ala ez, ziurtagiri telematikoen bidez, zuzenean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen informazioa lortzeko. Interesdunak berariaz uko egiten badio baimen horri, betebehar horietan egunean dagoela frogatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

1.2. Dokumentazio administratiboa

Aurreko atalean deskribatutako eskaera honako dokumentazio administratibo honekin osatu beharko da, hala badagokio:

- Ordezkaritza kasuan, ahalordetze-eskrituraren kopia edo ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua, deialdiaren web-fitxan eskuragarri dagoen ereduaren arabera, bi alderdiek sinatuta.

  Halaber, eskatzaileak ez badu jarduketa diruz lagungarriaren titularraren ordezkaritza-ahalorderik, 1.1 apartatuan adierazitako adierazpenak erantsi beharko ditu; hain zuzen, honako hauek: «Erantzukizunpeko adierazpenak», «Beste laguntza batzuen adierazpena» eta «BEZaren aitorpena» dokumentuak (deialdiaren web-fitxan daude), onuradunak edo ordezkaritza-ahalordea duenak sinatuta.

- 30.000 eurotik gorako laguntza-eskaeren kasuan, abenduaren 29ko 3/2004 Legean (merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituena) ezarritako ordainketa-epeak betetzen direla egiaztatzen duen agiria, 2.3 oinarrian adierazitakoaren arabera.

- Eskatzailea eraikinaren jabea ez bada, laguntzaren xede den jarduketarekin lotutako obrak egin ahal izateko berariazko ahalmena duela egiaztatzen duen dokumentazioa edo kontratua aurkeztu beharko da.

1.3. Dokumentazio teknikoa

- Eraikinaren jabetza, erabilera, azalera eta eraikuntza-urtea egiaztatzen dituen dokumentuaren kopia. Horretarako, eraikinaren titulartasuna egiaztatzen duen «katastroko ziurtagiri deskribatzailea eta grafikoa» aurkeztu beharko da. Ziurtagiri hori katastroko egoitza elektronikoan eskuratzen da: Pertsona baten izenean dauden higiezinak kontsultatzea eta lurzati-zedula ziurtatuak lortzea. Katastroan esleitutako eraikinaren erabilera ez badator bat higiezinean benetan egiten den jarduerarekin, hirigintza-lizentziaren edo dokumentu publiko baliokidearen bidez egiaztatu beharko da hirugarren sektoreko jarduera egin dela.

- Egin asmo diren jarduketen deskribapen-memoria, teknikari eskudunak sinatua eta datatua, deialdiaren web-fitxan dagoen ereduaren arabera, eta fitxa horretan adierazitako dokumentazioa erantsita. Energia-efizientziaren ziurtagiriak laguntza eskatzeko unean indarrean dauden programen bertsioen arabera egin behar dira.

1.3. atal honetan adierazitako dokumentazioa aurkezten ez bada, ezin izanen da zuzendu akats hori, inola ere.

2. Egindako jarduketak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa

6. oinarriaren arabera, onuradunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute egindako jarduketak behar bezala gauzatu direla egiaztatzeko:

- Egindako jarduketaren justifikazio-memoria, teknikari eskudunak sinatua eta datatua, deialdiaren web-fitxan dagoen ereduaren arabera, eta bertan adierazitako dokumentazioa erantsita.

- Aurkeztutako aurrekontuaren onarpen-dokumentuen kopia. Onarpen-dokumentu horiek jarduketa aurrera eramateko konpromiso irmotzat hartuko dira, eta, beraz, deialdiaren izaera pizgarria kontuan izanda, laguntza-eskaera erregistratu ondorengo data izan beharko dute. Onarpen hori egiaztatzeko, honako hauek aurkezten ahalko dira:

    - Aurrez aurkeztutako aurrekontua onartzen duen eskaera.
    - Aurrez aurkeztutako aurrekontuaren onarpena jasotzen duen kontratua, sinatuta.
    - Aurrekontua, sinatuta eta data zehaztuta.
    - Aurrez aurkeztutako aurrekontua onartzen dela adierazten duen mezu elektronikoa.

- Fakturen eta horien banku-ordainagirien kopiak. Fakturak onuradunaren izenean egin beharko dira, eta ordainagirietan argi eta garbi identifikatu beharko dira ordaintzailea (laguntzaren onuraduna), ordainketa jasotzen duena, data eta dagokion fakturarekin lotutako kontzeptua.

- Aplikatu beharreko araudiak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, deialdiaren web-fitxan eskuragarri dagoen ereduaren arabera.

- Kasua bada, onuradunak dirulaguntza jasotzeko banku-kontuaren eguneraketa. “Banku-kontuak jakinaraztea, Foru Administrazioaren ordainketak jasotzeko” tramitearen bitartez egiten ahalko da, edo deialdiaren fitxan eskuragarri dagoen Transferentzia bidez ordaintzeko eskaeraren inprimakia aurkeztuz.

III. ERANSKINA

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Kategorien araberako Salbuespenari buruzko 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendu Orokorreko 38 bis artikuluan eraikinen energia-efizientziako jarduketetarako ezarritakoaren araberakoa izanen da dirulaguntzaren zenbatekoa. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk bateragarritzat jotzen dira barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz.

Taula hauetan, kostu diruz lagungarriaren gainean aplikatu beharreko ehunekoak agertzen dira.

	Enpresa handia	Enpresa ertaina	Enpresa txikia
Oro har	% 30	% 40	% 50
Energia primarioa gutxienez % 40 murriztuz gero	% 45	% 55	% 65
Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 3. apartatuko c) letrako baldintzak betetzen dituzten lagundutako eremuetan kokatutako inbertsioak.	+ % 5	+ % 5	+ % 5

Deialdiaren web-fitxan eskura dagoen «Eskualdeko laguntzen mapa» dokumentuan kontsultatzen ahal dira EBFTren 107. artikuluko 3. apartatuko c) letrako baldintzak betetzen dituzten lagundutako eremuak